

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko urriaren 4ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru Dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 65/2016 Foru dekretua, urriaren 4koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzen duena.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 629/2016 Erabakia, urriaren 4koa, Aldundi honen elkartasun eta lankidetzatza politiken esparru agiria onartzen duena.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 630/2016 Erabakia, urriaren 4koa, Araban ekintzaile izateko eta enpresa berriak sortzeko laguntza lerroa ebazten duena (Ekin Araban – 2016).

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 631/2016 Erabakia, urriaren 4koa, Arabako Kalkulu Gunea SA - AKGSAREN esku uzten duena, zuzeneko kudeaketaren bitartez, Aldundi honen aplikazio informatikoak mantentzeko zerbitzuaren ardura 2017-2018 aldirako, urtero 1.465.421,00 eurotan gehienez ere.

Diputatuen Kontseiluaren 632/2016 Erabakia, urriaren 4koa, Arabako Kalkulu Gunea SA - AKGSAREN esku uzten duena, zuzeneko kudeaketaren bitartez, Contact Center Diputacion Digital zerbitzua 2017-2020 aldirako, urtero 208.000,- eurotan gehienez ere.

Diputatuen Kontseiluaren 633/2016 Erabakia, urriaren 4koa, Arabako Kalkulu Gunea SA - AKGSAREN esku uzten dituen, zuzeneko kudeaketaren bitartez, Aldundi honen giza baliabideak eta ondarea kudeatzeko sistema mantentzeko zerbitzua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen giza baliabideak kudeatzeko sistemaren mantentzea 2017-2020 aldirako, hurrenez hurren urtero 123.050,00 eurotan eta 87.161,00 eurotan gehienez ere.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 634/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena lankidetzatza hitzarmen bat sinatzea Oiongo Udalarekin, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeari buruz

Diputatuen Kontseiluaren 635/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena Tuestako Kontzejuarekin hitzarmen bat izenpetzea, kontzeju horren kredituak eta eskubideak betearazte aldiran biltzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 636/2016 Erabakia, urriaren 4koa, Nekazaritza, Bide Azpiegitura eta Mugikortasuna eta Ingurumen eta Hirigintza sailek eskatuta, onartzen dituen 136/20016 eta 139/2016 kreditu transferentziaren espedienteak (45.237,90 euro), landa bideak egokitzeko eta hobetzeko obrak egite aldera, "Landa azpiegitura obrak" partida sortu berria funtsez hornitzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 637/2016 Erabakia, urriaren 4koa, kreditu transferentziaren 140/2016 espedientea onartzen duena, 44.829,50 euroko zenbatekoaz, "Suhiltzaileen kudeaketako informatika aplikazioa" izeneko partida funtsez hornitzeko, Arabako Foru Suhiltzaileak – Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoa haiekin hornitzeko helburuaz, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak eskaturik.

Diputatuen Kontseiluaren 638/2016 Erabakia, urriaren 4koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu eta Euskara, Kultura eta Kirol sailek eskatuta, onartzen duena 146/2016 kreditu transferentziaren espedientea (22.105,51 euro), Mendozako Hurtado dorretxearen zenbait finka, eraikin eta etxaguntzaren jabetza lortzeko eskubidea eskuratze aldera, "Martiodako dorrearen jabetza" partida sortu berria funtsez hornitzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 639/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena 3/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 18.500,- euroko zenbatekoaz, "Ikastetxeetako programak" izeneko partida funtsez hornitzeko, gazteen astialdi eta turismo programak garatzetik sortutako gastuei aurre egiteko, Gazteriaren Foru Erakundeak eskaturik.

Diputatuen Kontseiluaren 640/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena Gesaltza Añanako Herrán familiaren dokumentazioaren gordailua, Valentín Angulo Pérez de Nanclares jaunak Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegiari emanda.

Diputatuen Kontseiluaren 641/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena Maeztu deituraren inguruko dokumentazioaren gordailua, Iñigo Maeztu Gómez jaunak Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegiari emanda.

Diputatuen Kontseiluaren 642/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena Argüelles etxearen eta Gesaltza Añanaren inguruko dokumentazioaren gordailua, Olga García de Andoain Canillas andreak Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegiari emanda.

Diputatuen Kontseiluaren 643/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena Jesús Estrada Arredondoren argazki funtsaren dohaintza, Kaiet Estrada Gamarra jaunak, Goiuri Estrada Gamarra jaunak eta Virginia Estrada Arrendondo andreak Aldundi honi egina.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 644/2016 Erabakia, urriaren 4koa, luzatu egiten duena "San Prudentzio" Eguneko Zentroa mantentzeko Vitoria-Gasteizko Udalarekin izenpetutako hitzarmena.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 645/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena hutsen zuzenketa egitea irailaren 20ko 605/2016 Erabakian, zeinen bidez esleitu baitzen "Arabako lurralde historikoko suteak itzaltzeko talde eta itzaltze lanetarako makinak" kontratua.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 646/2016 Erabakia, urriaren 4koa, 2017ko urriaren 31ra arte luzatzen duena "Errepideen foru sarean izotzik egin ez dadin eta, eginez gero, gesaltzeko, 2013-2014 eta 2014-2015 neguetako bidezaintza kanpainetarako gatz hornikuntza" rako kontratua, eta esleitzen dituen 2015-2016 kanpainako 2016. urteari dagozkion 35.000 euroak, BEZa barne.

Diputatuen Kontseiluaren 647/2016 Erabakia, urriaren 4koa, honako honen espedientea onartzen duena, ohiko izapidetze bidez: "N-124 errepidea 28,00 eta 31,00 km-en artean bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektua, N-124 errepidea 25,5 kilometrotik 31,90 kilometrora bikoizteko eta autobia bihurtzeko eraikuntza proiektutik bereizitakoa, eta A-3122 errepidean Berantevillako saihezbidea egiteko eraikuntza proiektua", 23.224.305,85 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne. Gauzatzeko epea: 28 hilabete.

Diputatuen Kontseiluaren 648/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena "A-2130 errepidean, 2+670 eta 5+930 kilometro puntuen artean, errodadura geruza birgaitzeko eta berriro jartzeko proiektua" prozedura arruntaren bidez kontratatzeko espedientea, 241.989,78 euroko zenbatekoarekin, BEZa barne, eta obrak gauzatzeko hilabeteko epearekin.

Diputatuen Kontseiluaren 649/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena "A-3140 errepidean, 15+050 eta 18+290 kilometro puntuen artean, zorua hobetu eta sendotzeko proiektua" prozedura arruntaren bidez kontratatzeko espedientea, 241.875,59 euroko zenbatekoarekin, BEZa barne, eta obrak gauzatzeko hilabeteko epearekin.

Diputatuen Kontseiluaren 650/2016 Erabakia, urriaren 4koa, ezezkoa ematen diona Excavaciones Raúl Vicente, SLk egindako erreklamazioari, zeinaren bidez "A-3314 errepidean, Izarrako zeharbidea (Geltoki kalea), 36,390 kilometrotik 36,760 kilometrora, egokitzeko eta urbanizatzeko eraikitze proiektua" ren esleipenduna den Arian, Construcción y Gestión de Infraestructuras, SA enpresak zor duen 14.074,92 euroko zenbatekoa ordaintzeko eskatzen duen.

Diputatuen Kontseiluaren 651/2016 Erabakia, urriaren 4koa, honako kontratu hau suntsiarazten duena, kontratistaren erruzko ez-betetzeagatik: "Bide segurtasuna hobetzea foru sareko errepideetan. Prebentzio eta arintze jardunak 2016-2017";Tevaseñal, SAri esleitua. Hori guztia, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratuko 212.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 652/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena Araban eta Trebiñoko Konderrian paper eta kartoi erabilia bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren behin betiko likidazioa, bai eta hartaz erantzuteko jarritako bermearen itzulketa ere.